

## EBAZPENA

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako eskabideak behin betiko onartzen diren.

IVAPeko zuzendariak, 2024ko urtarrilaren 19ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 2024ko otsailak 1; 24 zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen. Era berean, proba hauetarako onartutako behin-behineko eskabideen berri ematen zuen IVAPeko zuzendariaren Ebazpena argitaratu zen 2024ko otsailaren 27an (IVAPen webgunea, (2024-02-27). Ebazpen horren kontrako erreklamazio epea amaiturik, aurkeztu direnak aztertu eta ebatzi ondoren, deialdiko 6. oinarriarekin bat etorritik, hauxe

### EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa.** Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako eskabideak behin betiko onartzea. Eskatzaile bakoitzak Azterneten kontsultatu beharko du bere eskabidearen egoera, onartuta ala baztertuta dagoen ikusteko: «Eskabideak > Hizkuntza-eskakizunak > Eskabideen kontsulta eta jarraipena > IVAPeko ohiko deialdiak (2024-01-19) > Eskaeraren datuak».

Ebazpen honetan xedatutakoaren kontra gora jotzeko errekurtsoa ipini ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, berau IVAPeko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Errekurtsoak Azterneten bidez aurkeztuko dira: «Eskabideak > Hizkuntza-eskakizunak > Eskabideen kontsulta eta jarraipena > IVAPeko ohiko deialdiak (2024-01-19) > Erreklamazio edo errekurtso berria».

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Maite Barruetaña Zenekorta  
IVAPeko zuzendaria





## RESOLUCIÓN

De la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se aprueban las solicitudes admitidas de manera definitiva para las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos.

---

Por Resolución de 19 de enero de 2024 (BOPV, 1 de febrero de 2024; n.º 24), la Directora del IVAP convocó pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos. Asimismo, el 27 de febrero de 2024 se publicó la Resolución de la Directora del IVAP aprobando las solicitudes provisionales para las citadas pruebas (página web del IVAP, 27-02-2024). Una vez finalizado el plazo de presentación de reclamaciones contra la misma, después de examinar y resolver las presentadas, de conformidad con la base 6 de la convocatoria,

### RESUELVO:

**Primero.** Aprobar las solicitudes admitidas de manera definitiva para las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos. Las personas solicitantes deberán consultar en Azternet el estado de su solicitud, para saber si han sido aceptadas o excluidas: «Solicitudes > Perfiles lingüísticos > Consulta y seguimiento de solicitudes > Convocatorias ordinarias del IVAP (19-01-2024) > Datos solicitud».

Contra lo dispuesto en la presente Resolución se podrá interponer recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en la página web del IVAP. La presentación de recursos se deberá realizar a través de Azternet: «Solicitudes > Perfiles lingüísticos > Consulta y seguimiento de solicitudes > Convocatorias ordinarias del IVAP (19-01-2024) > Nueva reclamación / recurso».

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

Maite Barruetaña Zenekorta  
Directora del IVAP